

## CARITASEN KANPAINA

2015.eko IRAILAren 27a

### **URTEAN ZEHARREKO XXVI. DOMEKEA (B)**

## **«JUSTIZIA, gure marka»**

### **Liturgi lagungarriak**

#### **Atarikoak:**

- ✠ Lagungarriok liturgiarako talde sustatzailearen esku itzi.
- ✠ Aldez aurretik prestatuta dagozanez, kontuan izan kanpaina egingo dan egunetan Jaungoikoaren herriaren otoitzean gogoratu beharreko gertaerak izan daitezakela.
- ✠ Liturgi lagungarriakaz batera bialtzen diran materialak irakurtea egokia da, kanpainaren nondik norakoak ezagutzeko eta homilian esango dana argitzeko.

#### **HASIERAKO OHARRA**

Anai-arrebok: Jesus Jaunak deituta batu gara, gaur be, Eleiza lez, bere hitza entzuteko eta Eukaristia ospatzeko.

Jaungoiko Aitak behin eta barriz konbidatzen gaitu Bera aintzat hartuta bizi gaitez, mundua eta historia aukeraz betetako leku lez ikusi daiguzan, besteakaz bat eginda jardunez eraikitzea jagokun giza familiaren handitasunaz jaubetu gaitez.

Pastoral ekiturte barriaren hasieran, Caritasek bere kanpaina ospatzen dau gaur, hausnartzeko eta dirua batzeko. «Justizia, gure marka» goiburua aukeratu dabe, Kreazinoagaz arduratsu jokatzeko eta zarrastelkeriaren kultura eteteko dei egin eta munduaren sorrera barrian konprometitu gaitez. Danon ardura da gizabanakoen duintasuna eta eskubideak defentdatzea. Egin daigun gizarte barria, ahulenakaz zuzenago eta konprometituagoa dan gizarte.

Eukaristia ospatzera doan alkarte lez, zabaldu daiguzan gure ateak eta bizi daigun txikiñen eta ahulenen aldeko harreraren poza.

## CAMPAÑA DE CÁRITAS

27 de SEPTIEMBRE de 2015

### **XXVI DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO (B)**

## **«Practica la JUSTICIA»**

### **Subsidios litúrgicos**

#### **Notas previas:**

- ✠ No olvidéis pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✠ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✠ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es buena para comprender el sentido de la Campaña e iluminar lo que se diga en la homilía.

#### **MONICIÓN INICIAL**

Hermanas y hermanos: El Señor Jesús nos ha convocado, como cada domingo, a escuchar su palabra y celebrar la Eucaristía, reunidos como Iglesia.

Dios Padre nos sigue invitando, una y otra vez, para que vivamos en su presencia, para que veamos el mundo y la historia como un lugar de posibilidades, para que trabajando codo a codo con los demás descubramos la grandeza de la Familia humana que tenemos que construir.

Iniciando el nuevo curso pastoral, Cáritas nos presenta en este domingo la jornada de reflexión y colecta con un lema sugerente: «Practica la justicia». Es una llamada a ser responsables con la Creación, deteniendo la cultura del despilfarro. Podemos recrear el mundo. Actuar por la dignidad de las personas y sus derechos es tarea de todas las personas. Construyamos una sociedad nueva, más justa y comprometida con las personas más vulnerables.

Como comunidad que se dispone a celebrar la Eucaristía, abramos nuestras puertas y vivamos el gozo de la acogida a las personas más pequeñas y desfavorecidas.





## SARRERAKO ABESTIA

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari...

## ABADEAREN AGURRA

Jainkoa eta lagun hurkoa maitatu daiguzan gure bihotzak zuzentzen dituan Jauna, zuekin.

## DAMU OTOITZA

Ospakizun honen hasieran, eskatu deoigun Jaunari gure bihotz-barritzea. (*Isilunea egin*).

- Maitasuna eta errespetua izango dogun familia bakar egin gura gaituzuna.  
*Erruki, Jauna.*
- Bizitzako zoriona danen aldeko errespetuan, eskaintzan eta zerbitzuan dagoala dinoskuzuna.  
*Kristo, erruki.*
- Txikien eta apalen babesle eta defendatzaile zarana.  
*Erruki, Jauna.*

## OHARRA 1. IRAKURGAIARI

(Zenb 11, 25-29)

Moises Israel herria gidatzen saiatzen da, esperientzia eta heldutasuna daben 70 pertsonen, euren jakituriagaitik nagusiak deitutakoen laguntzagaz. Iragartea be bajagoke, baina ez eurei bakarrik. Kontakizunean nabarmentzen danez, Jaungoikoak gura dauanari emon deikeoz bere doeak, inor eta ezerk ez daualako behartzen.

## OHARRA 2. IRAKURGAIARI

(St 5,1-6)

Santiagoren gutuna ohartarazpena da, bizitza eukitea eta metatzea baino ez dala uste dabenentzat; ohartarazpena, batez be, ongizatea bidebakokeriatik, iruzurtik edo besteak alde batera izten dituan norbere segurtasunetik sortzen bada. Entzungo dogun idazki honek gogor egiten dau bidebako aberastasunaren aurka.

## CANTO DE ENTRADA

Iniciamos la celebración unidos en el canto

## SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que dirige nuestros corazones para que amemos a Dios y al prójimo, esté con todos vosotros.

## ACTO PENITENCIAL

Al comenzar esta celebración, pidamos a Dios que nos conceda la conversión de nuestros corazones. (*Instantes de silencio*)

- Tú que quieres hacer de nosotros una sola familia donde todos se sientan queridos y respetados. *Señor, ten piedad.*
- Tú que pones la felicidad de la vida en el respeto a todos, en la entrega y en el servicio. *Cristo, ten piedad.*
- Tú que eres protector y defensor de los pequeños y los humildes. *Señor, ten piedad.*

## MONICIÓN A LA 1ª LECTURA

(Núm 11, 25-29)

Moisés trata de guiar al pueblo de Israel, con la ayuda de 70 personas probadas en experiencia y madurez, llamados los ancianos por su sabiduría. Éstos tienen también la misión de profetizar, pero no en exclusiva. El relato nos insiste en que Dios puede dar sus dones a quien quiera, que no está obligado a nada ni a nadie.

## MONICIÓN A LA 2ª LECTURA

(St 5,1-6)

La carta de Santiago es una llamada de atención para cuantos piensan que la vida es sólo tener y acaparar; una llamada de atención, sobre todo, si el bienestar nace de la injusticia, del fraude o de la propia seguridad, sin atender a las necesidades de los demás. La riqueza injusta es atacada con fuerza en este texto que escuchamos ahora.

## OHARRA EBANJELIOARI

(Mk 9, 38-43.45.47-48)

Jesus alkartea egitera etorri da, banaketak gainditzera, eta horregaitik bere eskemetan ez da sartzen “gurea” onena dala eta “besteena” ez daukala balio pentsatzea. Pentsaera horrek inorentzat onak ez diran aldeak dakar. Ez da inoren eksklusiba gizabanakoen eta gizartearen onerako jarduteko gaitasuna. Hobe litzateke batasuna eta osagarritasuna bilatuko bagendu.

## JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Zabaldu daigun bihotza gizon eta emakume guztien beharrezanetara eta, konfiantza osoz, aurkeztu deiogun gure otoitza beharrezan eta baztertuen ondoan dagoan Aitari:

- Bizkaiko Eleizearen alde; pastoral ekiturte barriaren hasieran eta Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko V. Egitasmoaren haritik, ateak zabalduta eta eten barik bilatu daizala gaur eta hemen Ebanjelioa iragarteko bide eta estilo barriak.

*Eskatu deiogun Jaunari.*

- Caritasen alde; bertan lanean eta laguntzen diharduen guztiei begiratuta, geuk be giza biziaren eta gizon eta emakume guztien duintasunaren alde jardun daigun, danei oinarrizko eskubideak jades-terko aukerea emonez.

*Eskatu deiogun Jaunari.*

- Filadelfian ospatuko dan Familien Munduko Topaketaren alde; Frantzisko aita santuak esan dauan lez, familiaren eta ezkontzaren edertasunaz jaubetu gaituzan, izan be giza errealidade apal eta aberatsa da, bizitza bera lez, poz eta itxaropenez, neke eta sufrimentuz beterakoa

*Eskatu deiogun Jaunari.*

- Jesusen berbak entzun doguzan alde; bere irakaspenak kontuan hartuta, daren zerbitzari izaten, maitasunez jokatzen dabenei laguntzen eta Berari txiki eta ahulenenak onartuz harrera egiten ikasi daigun.

*Eskatu deiogun Jaunari.*

## MONICIÓN AL EVANGELIO

(Mc 9, 38-43.45.47-48)

Jesús ha venido a hacer comunidad, a superar cualquier división, y por eso no tiene cabida esa actitud de creer que lo “nuestro” es lo mejor, o que lo de los “otros” no sirve. Ese es el mejor modo de crear diferencias que a nadie ayudan. Nadie tiene en exclusiva la capacidad de trabajar por el bien de las personas y de la sociedad. Haríamos bien en buscar la unidad y la complementariedad.

## ORACIÓN UNIVERSAL

Abramos nuestro corazón a las necesidades de todas las personas y presentemos nuestra oración confiada al Padre que está cerca de quien es pobre y siente la exclusión:

- Por nuestra Iglesia de Bizkaia que comienza el nuevo curso pastoral, para que, con el V Plan Diocesano de Evangelización, manifestemos disponibilidad para la apertura y búsqueda esperanzada de nuevos caminos y estilos para anunciar el Evangelio hoy y aquí.

*Roguemos al Señor.*

- Por Cáritas, por quienes trabajan y colaboran con ella, para que nunca dejen de interpelarnos, y así, recuperemos el valor de la vida humana y la dignidad de todas las personas y nadie se quede sin acceso a los mismos derechos fundamentales.

*Roguemos al Señor.*

- Por el Encuentro Mundial de las Familias de Filadelfia, para que, como ha dicho el papa Francisco, tengamos siempre presente la belleza de la familia y del matrimonio, la grandeza de esta realidad humana, tan sencilla y a la vez tan rica, llena de alegrías y esperanzas, de fatigas y sufrimientos, como toda la vida.

*Roguemos al Señor.*

- Por nosotros que hemos escuchado las palabras de Jesús, para que siguiendo su enseñanza, aprendamos a ser servidores de todos, a colaborar con quienes actúan movidos por el amor y a acogerlo a Él acogiendo a los más pequeños e indefensos.

*Roguemos al Señor.*





Jaungoiko Aita, emon deuskuzun legea Zureganako eta lagun hurkoaganako maitasunean gauzatzen da; emoiguzu indarra maitasun hori gure bizitzetan garatzeko.

*Jesukristo gure Jaunaren bitartez.*

## OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Atera gaitezan bestearen bila! – Eratu daigun giza hartu-emonen sare anaikor eta solidarioa!

Gaur batzen dan dirua **Eleizbarrutiko Caritasentzat** izango da. Eskerrik asko esku zabaltasunez jokatzegaitik.

## FAMILIEN TOPAKETAKO OTOITZA

Jaungoiko eta Aita gurea,  
Jesus zure Seme eta gure Salbatzaileagan  
zure seme eta alaba egin gaituzu  
Eleizako familian.

Zure grazia eta maitasuna  
gure familiek lagun izan daiezala  
munduko edozein lekutan,  
alkartuta egon daitezán  
Ebanjelioaganako leialtasunean.

Familia Santuaren ereduak  
gidatu daizala, Espiritu Santuaren laguntzaz,  
familia guztiak, eta batez be atsekabetuenak,  
alkartasun- eta otoitz-etxe izan daitezán  
eta beti zure egia bilatu daien eta zure maitasunean bizi daitezán.

Jesus, Maria eta Jose,  
otoitz gure alde!

*Amen.*

Dios Padre, la ley que nos has dado se realiza en el amor a ti y al prójimo, danos fuerza para realizar este amor en nuestras vidas.

*Por Jesucristo, nuestro Señor.*

## MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

¡Salgamos al encuentro del otro! - ¡Construyamos una red fraterna y solidaria de relaciones humanas!

La colecta de hoy será destinada a **Cáritas Diocesana**. Gracias a todos por vuestra generosidad.

## ORACIÓN DEL ENCUENTRO DE LAS FAMILIAS

Dios y Padre nuestro,  
en Jesús, tu Hijo y nuestro Salvador,  
nos has hecho tus hijos e hijas  
en la familia de la Iglesia.

Que tu gracia y amor  
ayuden a nuestras familias  
en cualquier parte del mundo  
a estar en unión con las demás  
en fidelidad al Evangelio.

Que el ejemplo de la Sagrada Familia,  
con la ayuda de tu Espíritu Santo,  
guíe a todas las familias, especialmente las  
más atribuladas,  
a ser casas de comunión y oración  
y a buscar siempre tu verdad y vivir en tu amor

¡Jesús, María y José,  
rogad por nosotros!

*Amén.*



**Cáritas**  
Bizkaia